IRUNGO UDALA

Haur, nerabe eta gazteen alorreko «GazteARTEan 2024» ikerketa-beka. BDNS (Identif.): 757924.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/757924).

Haurren, nerabeen eta gazteen esparruko GazteARTEan 2024 ikerketa beka arautzen duen deialdia onartzeko Irungo Udaleko Alkatetzaren 2024ko apirilaren 26ko 550. zenbakiko ebazpenaren laburpena.

Xedea.

Irungo Udaleko Gazteria Arloaren xedea da deialdi honetaz baliatzea tokiko esparruan haurrekin, nerabeekin eta gazteekin lotutako ikerketa-ekintza proiektuen garapena sustatzeko.

GazteARTEan bekaren xedea da sortzen ari diren ekimenak bultzatzea eta ikerketa lana bultzatzea herritar gazteen artean, eta, era berean, lan egiteko esparru berri bat eraikitzea Udalaren eta gazteen artean.

Ikerketa lanak, gehienez ere, 8 hilabeteko iraupena izango du, esleipena egiten denetik kontatuta, eta amaierako emaitza edo entregatzen dena formatu-proposamen askotarikoa izan ahalko da: proiektua, prozesua edo ekintza (hedapen materiala, lankidetzako prozesuak eta/edo partaidetzakoak...).

Onuradunak eta betekizunak.

— Beka, norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu honetan, (nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoen taldeak) ikerlanaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko da.

— Beka jaso ahal izateko ezinbestekoa da unibertsitate gradua edo lizentziatura edukitzea. Lantaldeen kasuan, denek frogatu beharko dute aipatutako gaitasuna.

— Beka eskatzen duen urteko abenduaren 31n 35 urte bete gabeak izatea. Lantaldeen kasuan, denek frogatu beharko dute aipatutako baldintza.

Zuzkidura ekonomikoa eta diru-laguntzaren zenbatekoa.

Aurrekontu-zuzkidura: 8.000,00 euro.

Aurrekontu aplikazioa: 1. 0430.480.99.337.20 2024.

Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.

Eskabideak aurkeztu ahal izango dira deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera 2024ko urriak 4a arte.

Eskaerak aurkeztuko dira Irungo Udalaren aurrean Udal Egoitza Elektronikoan (www.irun.org), HAZ Hiritarrak Atenditzeko Zerbitzuan, edo Administrazio Prozedura Erkidearena urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitakoaren araberako beste edozein prozedura bitartez.

AYUNTAMIENTO DE IRUN

Beca de investigación en materia de infancia, adolescencia y juventud «GazteARTEan 2024». BDNS (Identif.): 757924.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/757924).

Extracto de la resolución n.º 550, de 26 de abril de 2024 de la Alcaldía del Ayuntamiento de Irun, por la que se aprueba la Convocatoria de la Beca de investigación en materia de infancia, adolescencia y juventud GazteARTEan 2024.

Objeto.

El Servicio de Juventud del Ayuntamiento de Irun pretende mediante esta convocatoria promover el desarrollo de proyectos de investigación-acción en materias relacionadas con la infancia, la adolescencia y la juventud en el ámbito local.

El objeto de la beca GazteARTEan es apoyar el desarrollo autónomo de la iniciativa emergente, impulsar y estimular el trabajo investigador en la ciudadanía joven, y a su vez posibilitar la construcción de un nuevo marco de trabajo entre el Ayuntamiento y los/as jóvenes.

El trabajo de investigación tendrá una duración máxima de 8 meses, a contar desde que se adjudique la misma y el resultado final o entregable estará abierto a diferentes propuestas de formato; proyecto, proceso o acción (material divulgativo, procesos colaborativos y/o participativos...).

Beneficiarios/as y requisitos.

— Podrán solicitar esta beca personas físicas a título individual o grupos formados a tal efecto. En este supuesto (agrupaciones de personas físicas sin personalidad jurídica) se nombrará un director o directora responsable del trabajo de investigación.

— Para poder acceder a la beca es imprescindible tener un grado o licenciatura universitaria. En el caso de los grupos todos los miembros deberán cumplir el mencionado requisito.

— No haber cumplido 35 años de edad a 31 de diciembre del año en el que solicita la beca. En el caso de los grupos todos los miembros deberán cumplir el mencionado requisito.

Dotación económica y cuantía.

Dotación presupuestaria: 8.000,00 euros.

Aplicación presupuestaria: 1. 0430.480.99.337.20 2024.

Plazo y lugar de presentación de las solicitudes.

Las solicitudes deberán presentarse desde el día siguiente en que esta convocatoria se publique en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el 4 de octubre de 2024.

Las solicitudes se presentarán ante el Ayuntamiento de Irun en la Sede Electrónica Municipal (www.irun.org), en el Servicio de Atención Ciudadana (SAC) o cualquier otro medio previsto en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común.

EK\CV GAO-I-2024-03147

Eskaera elektronikoki aurkezteko, eskaera sinatu beharko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 11. artikuluan aurreikusitako sinadura elektronikorako sistemaren bat erabiliz (DNIe, Izenpe edo FNMT-ren ziurtagiri elektronikoak, Irun Txartela...).

Irun, 2024ko apirilaren 29a.—Gazteria Zerbitzuko arduraduna. (3147)

Para la presentación de la solicitud de forma electrónica, la solicitud deberá firmarse utilizando alguno de los sistemas de firma electrónica contemplados en el art. 11 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (DNIe, Certificados electrónicos de Izenpe o FNMT, Irun Txartela...).

Irun, a 29 de abril de 2024.—La responsable del Servicio de Juventud. (3147)

EK\CV GAO-I-2024-03147